

HISTORIA DE EUSKAL HERRIA, Tomo I

Los vascos de ayer

José Luis Orella
Txalaparta, Tafalla, 1996

Orain dela gutxi, *Argia* aldizkariak argitaratutako elkarrizketa batean, *Gaiak* argitaletxearen partaide den Alizia Stürtzek Euskal Herriko historiari buruzko lan orokorren falta aipatzen zuen¹. Bere ustez, duela 20 urte burutu ziren lan interesgarriek ez dute jarraipenik izan. Zoritxarrez, *Txalaparta* argitaletxeak kaleratu berri duen José Luis Orellaren *Historia de Euskal Herria*-k, trilogia baten lehenengo liburukiak, ez du aipatutako joera apurtuko (ikus obra honen hirugarren bolumenaren aipamena *Uztaro* 19-n, 1996, 77-84).

Los vascos de ayer izenburuarekin Euskal Herriko Antzinateko eta Erdi Aroko historia lantzen du liburu honek. Hasieratik esan dezagun lan honek gogora ekarri digula garai bateko historiografia espainiar militantea. Dirudienez, azken honek Espainia eta espainiarren ezaugarri batzuk asmatzeko eta goraiatzeko erabili zuen ikuspuntu nazionala baliagarria da egiteke dagoen Euskal Herriko historia idazteko. Garai jakin bateko historialari espainiar batzuek Espainiako betiko batasuna, handitasuna eta askatasunaren gainean eraiki bazuten ideologia jakin bat, eredu berean oinarritzen dira liburu honetatik jarraian aztertuko ditugun abiapuntuak eta ondorioak.

Euskal Herria, Herri bakarra

Jatorrizko batasunari dagokionez, kontrazalean irakur daitekeenak argi eta garbi adierazten digu Euskal Herria beti izan dela bakarra. Euskaldunek, nahiz eta beste batzuen menpe egon, beti Herri edo "nazio" bakarra osatu dute.

Batasuna frogatzearen, *vascón* zein *vasco* hitzak baliokideak dira. Honen ildotik, leku batean egindako ikerketak, batez ere Nafarroan eta Gipuzkoan, Euskal Herri osora estrapolatzen dira sarritan. Horrela euskaldunen ohiturak eta mentalitateak berdintsuak dira leku guztietan. Foru bitan agertutako ezaugarriak denontzat hartzen dira: hori dela eta, esate baterako, euskaldun guztien etxeetako teilatuetan arbela erabiltzen zen (292 or.).

Batasunak, bakarra izateak, Euskal Herriaren betiko existentzia ziurtatzen du. 1950.eko hamarkadako historiografia espainiarrak Espainiaren jaiotza Asturiasko Pelayoren erresistentzian finkatzen bazuen, Orellaren "pueblo vasco" delakoa, zaharragoa da². Horregatik, erromatarren garaian *saltus* deituriko lurraldea euskaldunen betiko hizkuntza eta kulturaren gordeleku bihurtuta, *ager*-en bizi zirenek sus-

1. *Argia*, 1.591. zenbakia, 32.

2. Ideia hau ez da batere berria; ikus adibide bat aipatzearen Euskadiko lehendakariak idatzita utzi zuena: «La Nación vasca existe y desde tiempo inmemorial se haya encaramada como un pájaro en los Pirineos.» Aguirre. J.A.: *De Guernica a Nueva York pasando por Berlín*, Bilbo, 1992 (berrarg.), 13.

traietara bueltatzeko aukera izan zuten.

x. mendearen hasieran, aurreko euskaldunen jarraitzailea den Nafarroako erresuma lurralde-batasunaren bila abiatu zen. Mende bat geroago, Antso Handiak, Erdi Aroko euskaldunen batasunaren ikurrak, batasuna gauzatu zuen. Tamalez, Euskal Herriaren batasuna kanpoko etsaiek apurtu zuten. Ordutik, Euskal Herriak, Granadako azken errege mairuak bezala, galdutako lurraldeagatik “negar” egiten du.

Dena den, Nafarroako erresumatik kanpo geratu ziren lurraldeen batasuna ziurtatuta zegoen. Azkenengo teoria hau frogatzeko Arabako Arriagako kofradiaren jaiotza, daturik ez badago ere, ix. mendean kokatu behar badugu, bejondaigula³.

Gainera, batasuna ez da bakarrik arlo politiko, etniko eta kulturalean islatzen. Ertaroko euskaldunek zuzenbideeredu bakarra eta berezia izan zuten. Historialaria, arlo honetan duen jakinduriak baliatuz, Euskal Herriaren etsai diren aipatu gabeko beste idazle batzuen iritzi faltsuak baztertzeko saiatzen da (202 or.)⁴.

Euskal Herria, Herri handia

Batasunari buruz liburuan agertzen dena aztertu eta gero, Euskal Herriaren lurraldeen zabaleraren ingurukoa aipatuko dugu.

Gaur egungo zazpi probintziak ez dira iraganaren isla pobrea baino. Euskaldunok ere, gure berezko Gibraltar daukagu. Honen haritik, Orellak eskuarki «irredento» hitza erabiltzen du⁵.

Euskal Herriak inoiz izan dituen lurraldeen artean beroien eta akitaniarren bizilekua sartzen du Orellak. Ideia honetatik abiatuz eta idazleak asmatutako tribuen jarraipenak Erdi Aroan zubi-lanak eginez, vi. mendean euskaldunek Akitanian burututako erasoaldiak ez luke kutsu espantsionistarik izango. Euskaldunak euren berezko birkonkista gauzatzen hasi ziren, lehengo lurraldeak berreskuratuz.

Beroiei eta Errioxari dagokionez, aurreko bidetik doa Orellaren azalpena. Gainera, mairuen aurkako erasoan, berreskurapenari birkonkista kristauren izpiritua gehitu zitzaion.

Lehen ikusi dugunez, euskaldunok ezin izan genuen denbora luzez geure jatorrizko mundurako itzuleraz gozatu. Hala eta guztiz ere, Gaztela aldetik etorritako Nafarroako erresumaren aurkako erasoak eta Aragoiko erregeen lapurketek edo “nafartasuna”ren aurkako politikak ez zuten gure lehengo handitasuna ahanzarazterik lortu.

Konkista militarrek justifikagai ez direnean aspaldian hilobiratutako sasi-“vascoiberismoa” erabiltzen da inongo lotsarik gabe. Gainera, aipatutakoari Erdi Aroko elizbarrutien inguruko ideia

3. Gonzalo Martínez Díezek aspaldi baztertu zuen teoria hau (*Alava Medieval II*, Gasteiz, 1974, 7).

4. Zoritxarrez, ez dira historialari hauen izenak aipatzen.

5. Klaudio Harluxet Fundazioak argitaratutako hiztegi entziklopedikoaren arabera *irredentismo* hitzaren esanahia honako hau da: «Nazio baten lurraldetik politikoki berezita dauden herrialdeak, historikoki edo kulturalki nazio baten zati direla uste izanik, errebindikatzen dituen politika edo mugimendua.»

batzuk gehitzen zaizkio, ekialdetik eta mendebaldetik Euskal Herriaren lurraldeak gaur egungo mugetatik at eramaten direla. Eguzkia inoiz sartzen bazen ere Euskal Herriaren lurraldeetan, kontuan hartu behar ditugu hala Burgosko iparraldea hartzen zuen Erdi Aroko Valpuestako elizbarrutiaren “kutsu arabarra”k nola Iruñeko elizbarrutiari Aragoi aldetik indarrez kendutako herriak. Idazleak, berriz ere, irakurlea harrিতuta utzi du: zeri deitzen zaio x eta xi. mendeko kutsu arabarra? Arabako alderdi politiko ezagun bati ideia hau primeran letorkioke.

Handitasun honetatik harrotasunera heltzen gara. Arte ederretan islatzen eiten topiko bat erabiltzen da: Erromaniakoaren garaiko euskaldunak zakarrak baziren ere ingurukoak baino askoz ere sakonagoak ziren⁶.

Euskal Herria: Herri askea

Idazlearen ustez, Euskal Herriaren askatasuna barruko antolamenduan eta kanpoko herriekiko harremanetan islatzen da.

Barruko antolamenduari dagokionez, Erdi Aroko euskaldunak sasi-demokrazia batean bizi ziren. Dirudienez, Claudio Sánchez Albornozi Orellak zordion begiruneak, historialari honen ideien jarraipena dakar ondorio gisa. Sánchez Albornozen ustez aske bizi zirenak Gaztelako Erdi Aroko nekazariak baziren, Orellak antzerako zerbait aldarrikatzen du Erdi Aroko euskaldu-

nentzat. Teoria honen atzetik, askotan erabilitako euskaldunen berdintasunaren kontzeptua erdi ezkutuan agertzen da.

Orellaren ustetan, xii. mendeko Nafarroako erregeek “erresuma nazionala” sortu ezezik, euren subdituen gogoia eta asmoa ere islatzen jakin zuten. Gainera, berezko nazionalitateaz gain, Erdi Aroko Nafarroako erresuman bazeuden alderdi politikoak.

Berriro ere, erakundeen inguruko azalpena erabiltzen da euskaldunen berezko antolamendua islatzeko. Bate-tik, foruak arau herrikoitzat hartzen dira⁷, eta bestetik, paktismoak eta ohi-turek duten garrantzia azpimarratzen da. Horrela, Nafarroako Gorteetan nafar guztiek parte hartzeko eskubidea Erdi Aroko lorpena izan zen (217 or.). Jakina, Euskal Herriko Erakunde-
deen berezitasuna azpimarratzeko ez da batere kontuan hartzen Aragoian edo Penintsulatik kanpoko beste erresumetan paktismoaren edo ohiuren garrantzia.

Beste herriekiko harremanei dagokienez, euskaldunen askatasuna beti izan da erasotua. Euskal Herriko historiografian batere berria ez den biktimismo antzua erabiliz, Herri honen independentziak kanpoko erasoak jasan behar izan ditu. Kanpotik etorritako eraso maltzurren aurrean Euskal Herria beti tinko agertu da. Dela erromatarren aurka, dela musulmanen kontra, Parker Lewis bezala, euskaldunek inoiz ez zuten galtzen.

6. Horrela Aymeric Picaudek, Erdi Aroko bidaiariak, monumentu bat merezi du. Euskal Herriko historiari dagokionez Erdi Arotik hona analisi historikoa ez dela garatu dirudi.

7. Foruak, erromantizismo garaian, *Volkgeist* edo Herriaren izpirituaren islatzat hartu ziren. Beraz, jatorrizko demokraziaren izpiritua gorde zuten (cf. Juaristi, J.: *El linaje de Aitor. la invención de la tradición vasca*, Madril, 1987, 27).

Bagauda mugimenduaren inguruko analisiak bide honetatik garamatza. Aipatutako euskaldunen etengabeko erresistentzia justifikatzeko v. mendearen erdialderantz gertatutakoa kronikotzat hartzen da eta, gainera, bisigodoen aurkako erasoekin lotzen da, bagaudak euskaldunak ziren ere jakin ez arren.

Hainbeste gatazkaren ostean, euskaldunen nahia xii. mendeko Nafarroako erresuma nazionalaren eraikuntzan islatzen da. Kanpoko erasoek jarraituko dute, eta xvi. mendearen hasieran Nafarroako erresumaren desagertzea ekarriko dute. Dena den, Orellaren ustez, foruei esker Nafarroak independente izaten jarraitu zuen *de facto*.

Halaber, beste euskal lurraldeen jatorrizko independentzia azpimarratzen da. Independentzia hau frogatzeko, ix. mendeko datu-eskasia eta zaharkitutako historiografia foruzaleak esandakoa erabiltzen dira.

Gainera, Nafarroako erresumatik mendebaldeko lurak bereizteko bertako gogoaren aurkako indarkeria erabili zuten. Armen bitarteko indarkeria, zein Gaztelatik bidalitako funtzionario elebarkar okerren jokoera, Herri honen batasuna apurtzen saiatu arren, ez zuten lortu. Etengabeko matxinada islatzen duten adibide batzuk aipatzen dira. Gipuzkoak ondoko estatuekin akordioak egiten jarraitu zuen. Bizkaiak, bere aldetik, Kalagorriko gotzainaren aurka borrokatu zuen, eta Arabako biztanleek ez zuten ondo ikusi Armeniako elizbarrutiaren desagertzea. Iparraldeari dagokionez Orellak datu falta aipatu arren, eta honi buruzko ikerketa gutxi dagoela ukalezina bada ere, azpimarratuko genuke ez dirudiela egileak dagoen gutxi hori ere ezagutzen duenik.

Analisi eta kontzeptu historiko batzuen erabileraren inguruko gogoetak

Analisi historikoari dagokionez, lan honek, lehen aurreratu dugun bezala, ez dakar ezer berririk. Alde batetik, zati askotan analisi honen falta igertzen baita. Gainera, gertakizunen kontaketara mugatzen den betiko Historia Politikoari eskainitako tartek lanaren erdia baino gehiago bereganatzen du. Errege nafarren azaleko biografien bitartez osatutako atalean, txarren eta onen arteko bereizketa manikeista besterik ez da agertzen. Batzuen zoritxar familiarrak eta beste batzuen aurkako engainuak eta konplotekin batera, hainbeste bider gorapatutako Herria ez da inondik azaltzen, ez bada zilegizko erregeen jokoera txalotzeko eta kanpokoena gutxiesteko.

Gure artean modan dagoen Mentalitateen Historia protagonista duen azken atala ez dugu aipatu gabe utzi gura. Askotan gertatzen den bezala, azaleko berrikuntzek ez dute atarramendu onik ekartzen. Azken finean, sexu, gaixotasun, ezkontza eta beste ohiturak aipatze hutsean geratuz gero, ezin dugu Mentalitateen Historiak ezer berririk ekarri duenik esan. Arrunta ez den gauza bati barrea eragiten duen zigor bat gehitzen zaio, analisi historikoa erbesteturik geratzen delarik.

Gainera, Erakundeen Historiatik gertatzen diren aldaketa sakonak aztertzea oso zaila da. Gizartearen bilakaera azaltzeko zailtasunari, idazlearen interes falta gaineratzen zaio. Azkenean, Antzinateari eskainitako atal laburrean *erakunde* hitzaren gehiegizko erabileraren atzetik, gizartea ezkutatu egiten da, leku bakoitzean abiadura desberdin bat erabiliz aldatzen den gizartea.

Analisi ezarekin batera kontzeptu batzuen inguruko teorizazio edo hausnarketa sakonaren falta ikusten da lan honetan. Hasieran aitaturako *vasco*=*vascón* terminoen inguruko nahasketa eta hiritarren artean Ataun eta Errezilgo biztanleak sartzeak merezi duen matizazioa ez agertzea tamalgarrria da. Gainera, nolabaiteko teorizazioa agertzen denean interpretazio atzerakoia edo tradizionalaren bidetik abiatzen da. Erdi Aroko nekazaritzaren garapenaren arrazoi gisa eguraldiaren aldaketa plazaratzea, Erdi Aroko merkatariak antolamendu feudalaren etsai amorratuak izatea, sorginek talde sozial bat osatzea edo “viandantes y camineros” klase sozialen artean aipatzea, birkonkistaren ideologia onartzea, feudalismoa bakarrik ikuspuntu instituzionaletik ulertzea, erromatarren garaiako *villae* direlakoak atzerapenaren ikurra izatea..., adibide bakar batzuk baino ez dira.

Honetaz gain, hainbeste bider era-soak jasandako Herriaren historia egiten denean, historialariak konkistatzailearen ideiak barneratzea ez da batere ondo ulertzen. Horrela, erromatarren konkista aurreko euskaldunek ez zeukaten antolamendu egonkor eta eraginkorra, administratu edo gobernatu gabeko Herria izanda. Halaber, kristautasuna onartu baino lehen bertako erlijioak ezin dira kultu anitzen nahasketa gisa ulertu. Eta azkenik, kulturari buruz hitz egiten denean ez da kontuan hartzen Kultura Herrikoa ez bada mesprezatzeko, gutxiengo batena goraiatzeko den neurrian.

Bestalde erabilitako bibliografiari leporatuko genioke gai batzuetan idazlearen interpretazioa. Hiru adibide baino ez.

Lehen: Iruñeko bisigodoen garaiko kanposantuari buruz hitz egiten denean ez dira kontuan hartzen Agustin Azkarateren ikerketak, Mezquiriren lan zaharrraren aipatzea mugatuz. Gaur egun, bertan hilobiratu zutenen ezaugarri kulturalak zalantzan daude.

Beste bat: euskarari buruzko azpiatlekan erabilitako lanak zaharregiak dira. Eta kasu batzuetan balioa erabat galdu ez badute ere, ikerketa berriekin kontrastatzea falta da.

Azkenik, Euskal Herriaren kristautzearen inguruko atalak betiko testu eta ideiak errepikatu baino ez du egiten. Gainera, ez du ikuspuntu orokorra ematea lortzen. Gai honetan, beste batzuetan gertatzen den bezala, betiko eztabaida antzuetan ez ibiltzeko Euskal Herritik kanpo gertatu zenarekin konparaketak egiteari behar-beharrezkoa deritzogu.

Amaitzeko, esan dezagun gaurko edo etorkizuneko egitasmo batek, Espainiakoak zein Euskal Herrikoak, ez duela horrelako historiografia justifikatzen. Euskal Herriko historiari buruz etorriko diren lan berriak itxaron beharko ditugu. Eta eskertzekoa litzateke gainera euskaraz idatzita edota argitaratuta etortzea.

Eugenio Riaño